



Moxona katu polit bat da, ile zuri finez eta ilunean bi perla eder bezala dizdiratzen diran begi-belzduna. Katu zoriontsua da.

Inguruan lorategi ederra duen etxe polit batean bizi da, hura bai dala Moxona-ren gozalekua. Guztiak maite dute eta gauzonez beterik atseginez bizi da. Batez ere, azken bolaran, inoiz baino pozago eta arroago arkitzen da gure Moxona, hiru katakume jostari izan dituelako. Eta



bereri begira gelditzen danean, bere bihotza, ama guztiei gertatzen zaien bezala, maitasunez eta arrokeriaz pil-pil jartzen zaio. Izan ere, hiru katutxoak hain dira ederrak, argiak eta osasuntsuak, Moxona pozik dago beren ama izateaz.



Pitxitxi, dana da ile eta txitxi, pintxana da eta beti dabil komerietan eta lurrean jauzika... Mixi bere anaitxoa nagiagoa eta lotsatiagoa da, ez mugitzearren, kinararik ere egin gabe, pasientziaz eramaten ditu beti jolaserako gertu dagoan



Pitxitxi-ren erasoaldiak. Mixina katakumetxoa berriz oso emekia da, moisinak eta laztanak gogoko dituan ez atse-gingarri zaizkio igurtzi lehunak.

Ama Moxona-k hirurak maite ditu eta inoiz ez da nekatzen aditzera ematea: —Poliki, Pitxitxi, ez zaite izan hain ol-darra, grazia gehiagorekin mugitzen ikasi behar duzu; zu, Mixi, ez gelditu hor zer egin ezean, defenditu zaite anaiaren erasoaldietatik... Begira, zuek biok Mixi-rekin begirapen gehiago izan behar duzute.

Bera neskatila da, eta neskatilekin zaldun galaiak

izan behar zerate. Ama Moxona, esan eta esan... ari da, baina ariko ez baltz bezala! Pitxitxi eta Mixi entzun-gor.

Baina adi jartzen dira bellarriak zuzendurik beren amak esaten diotenean, ondo portatzen badira, etxeko saloietatik ibilaldi bat egitera eramango dituala.

A! zer lilula! Zelako azpi-oihal! Jarleku lasaiak! Eta zer mueble eder, zenbat gauza berri eta eder inoiz ikusi gabek dauden mahai gainean jarriak!...





Mixina, Mixi eta Pitxitxi ez dira aspertzen gauza hoieri begira eta beren amari galdezka.

Moxonak bere umeok pozik ikusten ditu jakin nahiz kezkatu, baina adierazten diote:

–Semetxoak, arren, ez gero ezer ikutu gauzaren bat puskatu edo ondatu



ez dedin, zeren bestela... a ze nahigabe orduan!

Ama Moxona arduratzen dan artean bere txikitxo kezkatiak beharreztan ondamentzen bat egin ez dezaten, Pitxitxi bere aldetik joan zan eta bere hatzen indarra





probatu nahirik dabik gelako ohial finezko kurtina batzuetatik zintzilirik. Gehien gus-tatzen zitzaiona, oratu eta ziburuan dingi-lin-dangoan ibiltea da.

—Bat..., bi..., hiru!, eufi!... zer poliki!

Ama Moxonak oraindik ez du izan Pitxit-



xiren bihurrikeriarekin konturatzeko denborarik ere, eta bihurritxoak alakoak, bere ziburutzat hartu zuan kurtina handia eroritzea lortu du eta orain oihalpean deadarka ari da: —Ama!, ama!

Bere ama laister joan da Pitxitxi askatzera eta arduraz pentsatzen du zer gertatuko ote dan etxe-



ko nagusiak datoztenean. Baina ala ere ez daki Pitxitxi-ri hasarrerik egiten, begitxo bildurtiekin arretaz begira gelditzen zaio eta era berean egingakoaz arroturik, eta Moxona bere irri-parra bigotepean gorde ezinez...



Bitartean, Mixina hain guri eta hain txikiak artilezko harilgo bat arkitu du eta aztertuz ari da, batetik bestera ariniketan eta hari luzea alki, mahai eta gainerako jarlekuen artean nahasturik utziaz...



Mixi, bitartean, jan-gelan batera eta bestera jauzika ari da, eta saltu batean igo da portzelanazko ontzi bat lora sortaz dagoan mahai gainera loren

usai gozoa zurkatzera. Mixi ameslariak suhurretatik

loren usai gozoa xurka ondorean, jolaskor,

hatzekin igurtzi

nahi zuen. Baina,

bat-batean... pun-

ba!, lora-ontzia

erori eta lurrean

zatitu zan, eta ka-

tutxoa lurrean za-

baldu dan ur pot-

zuari begira geldit-

zen da.



Ama Moxona-k zarata entzun du eta laisterka, izaturik, abiatzen da, ondorean etorriko zaion zigorrarekin oroituaz.

Hala izan ere, neskameak entzun zuan orduko



sukaldetik heldu
zan ariniketan za-
rat-hotsera eta ar-
kitzen ditu hiru

katakume kezkatia beren bihurrikeriekin egin
dituzten ezbeharrak. Neskamea deiadarka eta



zemaituaz, eta ama Moxona-k bitartean, zuhurkeriz, garbituta eta apal eramán zituan hiru kuttunok kabira.

Orain bere ondoan ikustean, hain geldi, ohetzat duten saski barnean kukurturik, ezin da konturatu hiru ume hain txikiak nola egin ditza­kean horrenbeste kalte hain denbora gutxian.

Ama Moxona-k pentsatzen du ez dala denbora asko igaroko merezi duen zigorrez isatsak bere bizkar-hezurak arkitzeko, eta berak isilik hartuko ditu ama guztiak beren umeen neke eta nahigabeak eramaten dakitelako.

Baina nahiago du ez pentsa. Lehenago, abots

lehunez, loa-loa eztikiz txikitxoak lotarazi:

—Nere ume maiteok, inoiz ez zazutela ama desobeditu. Kasu egin beti maite zaituenai. Izan entzunekoak, zuhurrak eta obeditu eta zoriontsuak izango zerate...

Ama Moxona-ren abotsa geroago eta guri ta eztiago eginaz dijoa, haizearen igurtzi lehuna bezala, eta bitartean hiru katukume kezkatia lasai-lasai lo gelditu dira.

